



BALOREZKO PROPOSAMENA

Bezeroek gure produktua aukeratzearen arrazoia da, eta lehiakideengandik bereizten gaituena. Gure produktuari balio kualitatiboa gehitu diogu. Ikertzen egon gara eta ez dago gure produktua egiten duten bezelako lehiakiderik.

Gu egunero autobusa hartzen dugun ikasleak gara, ikastera joateko. Goizetan, oraindik gaua denez, eta ez denez ondo ikusten, toki bat libre aurkitzeko sailatasunak daude batzuetan. Eta arratsaldetan, jende asko dagoenez autobusean, asko zutik geratzen dira eta ez da ondo ikusten tokiren bat libre geratzen bada.

Batez ere, gure ideia bururatzekoan ibiltzeko zailtasunak daukaten pertsonengan oinarritu gara, bai agureak edo bai umeak. Batzuetan autobusaren atzeko alderaino joaten dira eta tokirik ez dagoenez berriz ere aurrealdera bueltatu behar dira. Ordurako, autobusa martxan dago jadanik eta ekilibrioa galtzen denez, erortzeko arrisku handiagoa dago.

Beste arazo hau izan liteke: autobusera igotzean atzealderaino joaten zara tokia dagoela pentsatzen, baina, tokirik ez dagoenez aurrealdera zoaz berriz ere eta ordurako iadanik ez daukazu tokirik ez atzean ez aurrean.

Produktu honen bitartez autobusa erabiltzen duten pertsonen erosotasuna bilatzen dugu. Gaur egungo autobusetan hainbat eta hainbat pertsona lotsa sentitzen dute norbaiten alboan jesartzerakoan, eta produktu honen bitartez, libre dagoela ikusten duzunean, agian ez duzu lotsa sentituko eta norbaiten alboan dagoen leku libre baten jesarriko zara. Autobusean sartzerakoan ez duzu begiratu behar lekuz-leku ia leku libreren bat dagoen, produktu honi esker autobusaren erabilera erraztuko genuke.

Produktu honekin ere agureei erosotasuna eskeiniko genieken, eta agureen artean autobusaren erabilpena handitu ahalko zen .



LichtBus

Eskainiko genukeen beste faktore bat arriskuak saihestea da. Horrela, batez ere agureak edo ibiltzeko sailtasunak dituen edonor, segituan okupatuta ez dagoen jesarlekura abiatzen dira eta ez dira autbosean zehar ibili behar toki baten bila.